

2022-12-16

PRENTSA-TXOSTENA

EUSKAL ESKOLA PUBLIKOAREN JAIAREN 30. EDIZIOAREN AURKEZPENA

Gaur aurkeztu dugu prentsaurrean 2023ko ekainaren 4aan Mungian egingo dugun Euskal Eskola Publikoaren 30. Jaia. Prentsurrekoan parte hartu dute Egoitz Regil, Mungialdeko IGEen ordezkari gisa, Alaitz Erkoreka Mungiako 1. alkateordea Udalaren izenean, Reyes Lengaran BIGEko koordinatzailea eta Lurdes Imaz EHIGEko koodinatzaileak. Bertan egon dira ere Mungialdeko ikastetxe publikoetako ordezkariak, ikasleak, familiak zein zuzendaritza-taldeak.

Euskal Eskola Publikoaren Jaia ekainaren lehen igandean egiten den jarduera bat baino askoz gehiago da. Eskolen arteko elkarlana sustatzea, sare publikoan egiten diren egitasmoak erakustea, ikastetxeen aldarrikapenak kaleratzea, familien parte hartzea eskolan bultzatzea eta hezkuntza komunitateari kalitatezko jarduerak eskaintza dira, besteak beste, Jaiaren helburuak.


Hezkuntzan lege-aldeketa sakonak egiten ari diren une batekin bat egiten du 30. Jai honek. Prozesu hori eskola publikoa sendotuz eta hedatuz amaitu behar da, euskal hezkuntza-sistemaren ardatz bihur dadin.

LELOA ETA IRUDIA

“**Jagon Eskola Publikoa**” da Euskal Eskola Publikoaren 30. Jaiaren leloa. Jaiaren urturrena aprobetxatuz, publikotasunaren garrantzia aldarrikatzen du, inoiz baino gehiago, aurtengo leloak, mungialdean erabiltzen den eta zaindu eta babestu adierazten duen jagon aditza du barne aurtengo logoak.

Irudiari dagokionez, Euskal Eskola Publikoa eraikitzenten, babesten eta ospatzenten duten familia, ikasle, irakasle eta hezkuntza komunitatea irudikatu nahi izan ditugu, diseinu garbi, alai eta koloretsu baten bidez. Horretarako forma geometriko anitzak ikusten dira irudian, Euskal Eskola Publikoa osatzenten duten pertsonak bezalakoak. Forma eta pertsona independenteak, baina harresi edo sare bezala antolatuta Euskal Eskola Publikoa saretu, babestu, aldarrikatu eta ospatzeko prest daudenak.

Xabat Agirre da aurtengo irudiaren egilea, eskola publikoko ikaslea izandako diseinatzailea.



MUNGIALDEKO IKASTETXE PUBLIKOAK

Ekainean ospatuko dugun Euskal Eskola Publikoaren Jaia antolatzen ari dira, EHIGErekin batera, Mungialdeko ikastetxe guztiak guraso eta zuzendaritza taldeen ordezkarriak parte hartzen ari dira antolaketan. Izan ere gure helburuetako bat eskualdeko ikastetxe publikoen arteko harremana sendotzea baita, orain eta aurrerantzean elkarrekin lan egin ahal izateko.

ESPAZIOAK ETA PROGRAMA

Aurtengo Jaiak lau gune izango ditu, ekintza ibiltariez gain. Mungiako espazio hauek hartuko dute Euskal Eskola Publikoaren Jaia:

- Eskola eta institutua
- Herriko plaza
- Uriguen parkea
- Torrebillela parkea
- Ibiltariak


Aurreko urteetan bezala, Jaiaren jarduerak ez dira mugatuko ekainaren 4ra. Ekainaren 3rako programa prestatzeko ari gara ere, eta urtean zehar hainbat aurretiko ekintza ere antolatuko dira.

BABESLEAK

Prentsaurrea amaitzeko, eskerrik beroenak eman nahi dizkiegu Euskal Eskola Publikoaren Jaiaren babesle eta laguntzaile guztiei eta gaurkoan bereziki, prentsaurrea egiteko Torrebillela dorretxeko espazio hau eskaini digun Mungiako Udalari.

www.euskaleskolapublikoarenjaia.eus

Informazio gehiago: Lurdes Imaz 688 689 877



DOSSIER DE PRENSA

PRESENTACIÓN DE LA 30^a FIESTA DE LA ESCUELA PÚBLICA VASCA

Hoy hemos presentado la 30^a edición de la Fiesta de la Escuela Pública Vasca, que celebraremos en Mungia el 4 de junio de 2023. Han participado en la rueda de prensa Egoitz Regil, como representante de las AMPA de Mungialdea, Alaitz Erkoreka primera teniente de alcalde en representación del Ayuntamiento de Mungia, Reyes Lengaran coordinadora de BIGE y Lurdes Imaz coordinadora de EHIGE. Asimismo, han acudido representantes de las familias, alumnado y las direcciones de los centros educativos públicos de Mungialdea.

La Fiesta de la Escuela Pública Vasca es mucho más que una actividad que se celebra el primer domingo de junio. Fomentar la colaboración entre las escuelas, mostrar los proyectos que se realizan en la red pública, hacer públicas las reivindicaciones de los centros educativos, impulsar la participación de las familias en la escuela y ofrecer actividades de calidad a la comunidad educativa son algunos de los objetivos de la Fiesta.


El aniversario de la Fiesta coincide además con un momento de cambios legislativos en educación, que debe culminar con el fortalecimiento de la escuela pública y su expansión para convertirse en eje del sistema educativo vasco.

LEMA E IMAGEN

“Jagon Eskola Publikoa” será el lema de la 30^a Fiesta de la Escuela Pública Vasca. Aprovechando el aniversario de la fiesta, el lema de este año reivindica, más que nunca, el valor de lo público. El verbo elegido no es fruto de la casualidad, *jagon* significa cuidar y proteger, y es un verbo que se utiliza especialmente en mungialdea.

En cuanto a la imagen, hemos querido representar a las familias, alumnos y alumnas, profesorado y a la comunidad educativa que construye, protege y celebra la Escuela Pública Vasca. Para ello hemos creado un diseño limpio, alegre y colorido en el que se observan múltiples formas geométricas, como las personas que componen la red pública. Formas y personas independientes que organizadas como muralla o red están dispuestas a construir, proteger, reivindicar y celebrar la Escuela Pública Vasca.

Xabat Agirre, diseñador que fue alumno de la escuela pública, es el autor de la imagen de este año.



CENTROS PÚBLICOS DE MUNGIALDEA

Están participando activamente y organizando la Fiesta de la Escuela Pública Vasca que celebraremos en junio, junto con EHIGE, todos los centros educativos públicos de Mungialdea. Contamos con la colaboración de representantes de las familias y los equipos directivos de todos los centros públicos, ya que uno de nuestros objetivos es fortalecer la relación entre los centros de esta red, así como poner en valor el trabajo que realizan en su día a día.

ESPACIOS Y PROGRAMA

La Fiesta de este año tendrá 4 gunes, más el habitual itinerante. Serán espacios de la Fiesta los siguientes espacios de Mungia:

- Escuela e instituto
- Plaza del Ayuntamiento
- Parque Uríguen
- Parque Torrebillela
- Itinerante

Las actividades de la Fiesta de la Escuela Pública Vasca no se limitarán al 4 de junio. Estamos preparando un programa de actividades para el día anterior, así como actividades previas que se llevarán a cabo a lo largo del año.

PATROCINADORES

Queremos acabar la rueda de prensa mostrando nuestro agradecimiento a todos los patrocinadores y colaboradores que hacen posible la Fiesta de la Escuela Pública Vasca, y muy especialmente al Ayuntamiento de Mungia, que nos ha abierto hoy las puertas de Torrebillela.

www.euskaleskolapublikoarenjaia.eus

Más información: Lurdes Imaz 688 689 877